



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko martxoaren 9a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru lege proiektua, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa. Toki Administrazioko Batzordeak onetsitako irizpena ([2. or.](#)).
- Foru Legea, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia ([5. or.](#)).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proiektua, Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin. Aurkeztutako zuzenketak ([10. or.](#)).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan Interneteko domeinu bereki eta berariazkoa kudeatzeko. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak bazter utzia ([12. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordioak lor ditzan hegazkin-konpainiekin Iruña-Noaingo aireportua hobetze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia ([12. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa txiki eta ertainen behatokia sor eta arau dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia ([13. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan Uztartu Plana izenaz ezagutzen dena foru arauetara aldatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia ([13. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko bidaiarien garraioa hobe dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia ([13. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira akordio bat lor dezaten abiadura handiko trenbidearen korridorea izenekoa eraiki eta finantzatzeko. Erretiratutako mozioa ([14. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Toki Administrazioako Batzordeak 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2005eko azaroaren 14ko 119. Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuranzuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 2, 6, 7 eta 9. zenbakiko zuzenketak, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztuak.

– 1, 3, 4, 5, 8 eta 10. zenbakiko zuzenketak, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztuak.

Zuzenketak 2006ko otsailaren 8ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2006ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Foru Lege proiektua, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legeko 5. artikulua ezarri zuen plan berezi bat eginen zela planean sartzen ziren obren finantzaketa osatzeko edo foru legean bertan ezarritako hautaketa eta leheneste parametroen ondorioz planean sartzen ez ziren obrak finantzatzeko. Artikulu horretan, bi jarduketa mota aurreikusi ziren: alde batetik, planean sartu ziren obra batzuen finantzaketa osatuko du planak berak, eta, bestetik, hautaketa eta

leheneste parametroen ondorioz planean sartu ez ziren jarduketa batzuk finantzatzeko ditu. Honakoak adierazi ziren plan berezi bat lantzeko irizpide orokor gisa: batetik, toki programaziokotzat sailkatutako azpiegituren defizit individual eta orokorra, eta, bestetik, toki entitateak kokatuta dauden eskualdearen defizita, Nafarroako toki entitateen osotasunarekin alderatuta; hiru urteko planak deitu izan direnek indarra hartu zutenetik ebaluatutakoak izanen dira defizit horiek. Azkenik, plan hori foru lege baten bidez arautu beharko zela ezarri zen.

Foru lege honek helburu du, hain zuzen ere, indarra duen eta urriaren 29ko 12/2004 Foru Legean xedatuaren arabera eginikoa den azpiegituren planaren osagarria izanen den plan berezia egiteko arauak ezartzea.

Lehenbizi, presio handiko ur horniduraren plan zuzendariko obretarako ekarpenak osatu beharko ditu planak. Obrak plan zuzendari horretan sartzeari buruzko amaierako erabakia ez denez hartzen plan horretan parte hartzen duten toki entitateen berehalako eta zuzeneko erabakien bitartez, beharrezkoa da entitate horien finantza-kostuak arintzea, eta, horretarako, 100eko 10 osatuko da 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko Foru Legean inbertsio horietarako ezarritako ekarpena. Hala eta guztiz ere, ekarpen hori ez da orokorra izanen eta eragina izanen du soilik aipaturiko plan zuzendarian sartuta dauden eta azpiegitura orokorraren aldetik 2004rako kalkulaturiko batez bestekoa (1,1590 dela ezarri da) baino defizit handiagoa duten toki entitateetan. Batez besteko hori, hiru urteko planei buruz egin den ebaluazioaren ondorioa da, eta Nafarroako Parlamentuak haren berri izan du Toki Administrazioako Batzordean.

Plan honek, gainera, bere baitan hartu beharko ditu defizit handieneko inbertsioei dagozkien obrak, Nafarroako eskualde guztietan egindakoak. Horri dagokionez, komenigarritzat jo da finantza-

ketaren guztizkotik 100eko 25 erresebatzea: 100eko 10 argiteria publikoko obretarako eta udal eraikinetarako banatuko da, hurrenez hurren, eta 100eko 5 hilerrietan eta toki-bideetan, oro har, inbertsioak egiteko. Gainerakoa, 100eko 75 hain zuzen ere, Nafarroa osoan defizit handiena duten obretarako emanen da, eta presio handiko ur horniduraren plan zuzendariko azpiegituretara bideratuko da, aipaturiko 100eko 10a emanez, bai eta hornidura eta saneamenduko toki-sareak, zoladura emateko lanak eta elektrifikazioak hartzen dituzten azpiegituretara ere.

Lurralde oreka lortzera bideratutako neurriak sustatzeko, urriaren 29ko 12/2004 Foru Legeko 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, azpiegituren defizitekin loturiko hautaketa irizpideen irizpide gehigarriak ezartzen dira. Esate baterako, kanpo utziko dira 1984tik 2004ra bitarteko toki azpiegituren inbertsio planen kargura aitorturiko kapital transferentzien bolumenaren adierazlea Okoa duten toki entitateak, Inbertsio planari buruzko Foru Lege indardunari jarraikiz, halako moduan non ez zaien laguntzarik emanen azpiegituretan zehar ekarpen gehien jaso dituzten toki entitateei. Ez dira hautatuko, ezta ere, aurreko planetan behin betiko sartu diren inbertsio zehatzak, baldin eta, gero, toki entitateek haiek egiteari uko egin badiote. Edonola ere, planaren muga foru lege honetan ezartzen den kopuru ekonomikoa izanen da.

Foru lege honek, bada, urriaren 29ko 12/2004 Foru Legeko 5. artikuluan adierazitako alderdi bat betetzen du, plan bereziak eskatzen dituen alderdi zehatz batzuk arautzen baititu; alderdi adjektibotarako, berriz, hartan aurreikusitako prozeduretara jotzea eskatzen du.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da 2006., 2007. eta 2008. urteetako aurrekontu-ekitaldietarako plan berezi bat ezartzea toki azpiegituren gaitetarako; betiere, 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legeak aurreikusitakoa osatzen du eta foru lege hori betetzeko onetsitako plana hartzen du abiapuntu. Plana zuzenduta dago foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten inbertsioak eginen dituzten toki entitateei.

2. artikulua. Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kargura eginiko ekarpenak.

Plan berezi honetarako ekarpenak Nafarroako Aurrekontu Orokorretako kapital transferentzien kargura ordainduko dira, eta 14.176.900 euro eginen dute. Urte anitzekoak izanen dira, eta 2005-

2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legeko 8. artikuluan ezarritakoak izanen dira. Hori, halere, ez da oztopoa izanen jarduketa honetarako aurreikusitako 2005eko ekitaldiko baliabideak hurrengo 2006ko ekitaldiko plan bereziko obretan gehitzeko.

3. artikulua. Plan berezian sar daitezkeen inbertsioak.

Finantzatu ahalko diren inbertsioak presio handiko ur horniduraren plan zuzendarikoak eta toki programazioaren obrak dira (sararik gabeko zolatzetarakoak izan ezik), hain zuzen eskatuta ere 2005-2008 eperako toki azpiegituren planean sartu ez zirenak.

4. artikulua. Presio handiko ur hornidurarako inbertsioen araubide ekonomiko-finantzarioa.

Presio handiko ur horniduraren plan zuzendariko obretarako ekarpenen araubidea ehuneko 10ekoa izanen da, eta 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko Foru Legean inbertsio horietarako aurreikusitako ekarpena osatuko dute.

5. artikulua. Presio handiko ur hornidurarako inbertsioen hautaketa.

Aurreko artikuluan ezarritako ekarpen osagarria honakoei egokituko zaie: 2004rako kalkulaturako batez bestekoa, 1,1590 hain zuzen, gainditzen duen azpiegituren orokorreko defizita duten toki entitateek egin beharreko presio handiko ur hornidurarako inbertsio guztiei.

Dagokion zerbitzua kudeatzeko beren beregi sortu den Mankomunitatekoak ez diren toki entitate batzuk hornitzeko obrak egin behar direnean, nahikoa izanen da obren proiektuaren arabera parte hartzen duen edozein toki entitatek aipatu batez bestekoa gainditzea.

6. artikulua. Toki programazioaren inbertsioen araubide ekonomiko-finantzarioa.

1.- Toki programazioaren obretarako ekarpenen araubidea 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko foru legeko 11. artikuluan eta harekin lotutakoetan ezarritakoa izanen da.

2.- Argiteria publikoko eta udal eraikinetako inbertsioetarako ekarpenen bolumen orokorrak ez du gaindituko, mota bakoitzerako, foru lege honetako 2. artikuluan ezarritako guztizko ekarpenaren 100eko 10, erresebak deskontatuta. Hilerrietan eta toki-bideetan inbertsioak egiteko, berriz, aipatu bolumen orokorrak ez du gaindituko aipatu kopuruaren 100eko 5; lehenbizi hautatuko dira sartzeko modukoak diren hilerri-obrak. Gelditzen diren ekarpenak gainerako inbertsio motetara bideratuko

dira, eta sar daitezkeen presio handiko ur hornidurarako obra guztiak hautatu ostean, ezin izanen dira hautatu sareetako zolatze-obra hautatuen 100eko 3,5 baino gehiagoko ehunekoan gaindizten duten beste sareetako obra batzuk.

7. artikulua. Toki programazioaren obren hautaketa.

Toki programazioaren obren hautaketa 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legeari jarraikiz onetsitako planaren II. eranskinean sarturiko inbertsioetatik abiatuta eginen da, betiere lortutako hautaketa eta leheneste koefizienteari eta ondoko baldintzei erreparatuta:

Lehena. Azpiegituretarako inbertsioetan soilik hautatu ahalko dira azpiegitura indibidualaren defizitean epe laburrerako beharrezkotzat sailkatu direnak, 2005-2008 eperako toki azpiegituren planeko hautaketa eta leheneste arauel jarraituz.

Bigarrena. Ezin izanen dira toki entitateen inbertsioak hautatu, entitate horien kapital transferentzien –Toki Administrazioiko Departamentuak 1984tik 2004ra bitartean exekutaturiko toki azpiegituretarako inbertsio planen kargura aitortutako transferentzien– bolumenaren adierazlea, 2005-2008 eperako toki azpiegituren plana garatzeko arauetan ezarritako terminoetan, aipatutako arauen arabera 0 denean.

Hirugarrena. Ezin izanen dira hautatu sareak jarri eta zoladura emateko inbertsioak, kasuko sareak plan berezian sarturik ez badaude.

Laugarrena. Ezin izanen dira hautatu aurreko toki azpiegituren planetan behin betiko sartu diren inbertsioak, baldin eta, gero, toki entitateek haiek egiteari uko egin badiote.

8. artikulua. Prozedura.

Nafarroako Gobernuak foru lege honetan ezarritako baldintzei begiratuz onetsiko du plan bere-

zia; une horretatik aurrera, plan hori garatu, kudeatu eta betearazteko prozedura izanen da 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legean eta hura garatzeko onesten den erregelamenduan ezarritakoa.

9. artikulua. Arau finantzarioak eta arau ekonomiko nahiz aurrekontuetakoak.

Plan bereziaren kudeaketako alderdi finantzarioetan eta ekonomiko nahiz aurrekontuetakoetan, 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legeko 7. eta 8. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

Lehen xedapen gehigarria. Obretako aurrekontuen gehikuntza.

Plan berezia osatzen duten obren zenbatekoa 100eko 10era bitarte gehitu ahal izanen da toki ogasunen funtsaren kargurako konpromiso ekonomikoa finkatzeko unean; horretarako, foru lege honetako 2. artikuluan ezarritako ekarpenen 100eko 7,5 bitarte erreserbatuko da.

Bigarren xedapen gehigarria. Dokumentazioa aurkezteko epea.

2006ko eta 2007ko obretarako dokumentazioa aurkezteko epea lau eta zortzi hilabetekoa izanen da, hurrenez hurren, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan berezia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Bestalde, 2008ko obretarako dokumentazioa 2007ko maiatzaren 1a baino lehen aurkeztuko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua apirilaren 4ko 8/1995 Foru Legearen bidez sortu zen, gizarte, ekonomia eta lan arloan organo aholku-emaile izateko Foru Komunitateko administrazioarentzat. Sortu zenetik pasatu den denborak erakutsi du lege araudi berria izatea komeni dela, horrela funtzionamenduan malgutasun handiagoa izan dezan, modu eraginkorragoan aritu ahal izateko.

Foru lege honek kontseiluaren orain arteko araudiari eusten dio funtsezko alderdietan eta, hala, ez da kideen osaera aldatu, administrazioaren eta ordezkagaitasuna duten organizazio batzuen ordezkariak biltzen baitira, nahiz eta arlo berri batzuk aipatu behar diren, esate baterako lan batzordeak sortzea, txostenak, proiektuak edo proposamenak egiteko lan talde gisa, bai eta kontseiluaren lehendakariordetzaren eta idazkaritza nagusiaren instituzionalizazioa ere.

Adierazi behar da foru legearen edukia Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen edukien arabera moldatu dela. Lege horren 28. artikulutik 34.era bitartekoetan kide anitzeko organoak arautzen dira.

Foru legea honela banatuta dago: 3 kapitulu, 16 artikulua, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

I. kapituluak, 1. artikulutik 4.era bitarte, kontseiluaren izaera eta osaera arautzen du. II. kapituluan, 5. artikulutik 15.era bitarte, kontseiluaren organoak zehazten dira. III. kapituluak, 16. artikuluan, kontseiluaren araubide ekonomiko finantzarioa biltzen du.

Lege testu hau prestatzeko prozesuan, ekonomia eta gizarte kontseiluko gaur egungo kideek lege testuaren edukiaren berri izan dute eta iradokizun batzuk egin dituzte. Horietako asko foru lege honetan bildu dira.

I. KAPITULUA Kontseiluaren izaera eta osaera

1. artikulua. Izaera.

1. Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua gizarte, ekonomia eta lan arloko organo aholku-emaile da Foru Komunitateko administrazioarentzat.

2. Kontseilua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren menpe egonen da organikoki.

2. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua hogeita zortzi kide izanen ditu, lehendakaria barne.

a) Horietako zazpi lehen taldea osatuko dute; hots, Foru Komunitateko administrazioaren ordezkariena. Horien arteko bat, gutxienez, Nafarroako toki administrazioa izanen da.

b) Bigarren taldea sindikatuetako zazpi kidek osatuko dute.

c) Hirugarren taldeak enpresaburuen elkarteetako zazpi kide izanen ditu.

d) Laugarren taldean zazpi kide izanen dira: bi ordezkari gizarte ekonomiaren sektorekoak, ordezkari bat kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteetakoak, bi ordezkari nekazari eta abeltzainen elkarteetakoak, ordezkari bat elkarte ekologisetakoak eta ordezkari bat Nafarroako Unibertsitate Publikoak hautatu beharrekoak.

2. Kontseiluan lehen taldekoak diren kideak Nafarroako Gobernuak hautatuko ditu, toki administrazioa izan ezik, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hautatuko baitu.

3. Kontseiluan bigarren taldekoak diren kideak ordezkagaitasun handienekotzat jotzen diren sindikatuek hautatuko dituzte, Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoari jarraituz, eta ordezkagaitasun horren arabera, eta kide batentzako lekua gordeko da izaera hori izan ez arren Foru Komunitatean langileen ordezkarien, enpresa batzordeetako kideen eta administrazio publikoetako kasuko organoetako kideen

100eko 10 edo gehiago lortu duen sindikatu bakoitzeko.

4. Kontseiluan hirugarren taldekoak diren kideak ordeztagaitasuna duten enpresaburu elkarteek hautatuko dituzte, beren ordeztagaitasunaren arabera, Langileen Estatutuari buruzko martxoaren 10eko 8/1980 Legearen seigarren xedapen gehigarriari abuztuaren 2ko 32/1984 Legeak emandako testuan ezarritakoari jarraituz.

5. Kontseiluan laugarren taldekoak diren kideak ondoko entitate edo elkarteek hautatuko dituzte, kasu bakoitzaren arabera:

a) Gizarte ekonomiaren sektorekoak, Foru Komunitatean sektore horretan ezarrita dauden kooperatiba-elkarteek eta lan sozietateen elkarteek.

b) Kontsumitzaile eta erabiltzaileei dagokiena, Nafarroan ezarrita dauden kontsumitzaile eta erabiltzaileen aldeko elkarteek.

c) Nekazaritza eta abeltzaintza sektorekoak, Foru Komunitatean sektore horretan ezarrita dauden lanbide elkarteek.

d) Elkarrekin ekologistek dagokiena, Nafarroan ezarpen handiena duenak.

e) Nafarroako Unibertsitate Publikoarena, bertako Gobernu Kontseiluak.

6. Bigarren, hirugarren eta laugarren taldeen kasuan, titularrak adina ordezko kide hautatuko dira.

7. Kontseiluan ordezkariek dituen elkarrekin batek aldaketak izaten baditu ordeztagaitasunean, egoera berrira egokituko da kontseiluaren osaera, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiarekin bat, bi hilabeteko epean, aldaketa izan dela egiaztatzen denetik hasita.

3. artikulua. Izendapena eta agintaldia.

1. Nafarroako Gobernuaren foru dekretu baten bidez izendatuko dira Kontseiluko kideak.

2. Agintaldia lau urtekoa izanen da, izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, eta lau urtez behin berritu ahalko da.

3. Baldin eta agintaldia bukatuko balitz kide berririk izendatu gabe, jardunean segituko dute harik eta izendapen horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte.

4. artikulua. Kargu-uztea.

1. Kontseiluko kideek arrazoi hauetakoren batengatik utziko dute kargua:

a) Agintaldia bukatzeagatik.

b) Hautatu zituzten erakunde edo elkarteek proposaturik.

c) Norberak eskatuta.

d) Judizialki deklaraturako ezgaitasunagatik.

e) Doluzko delitu baten ondorioz epai irmo baten bidez kondena hartzeagatik.

f) Heriotzagatik.

g) Hautatu zituen elkartearen ordeztagaitasuna aldatzen denean.

2. Foru dekretu bidez erabakiko da kargu-uztea.

3. Behar baino lehen gerta litezkeen hutsuneak aurreko 2. eta 3. artikuluetan ezarritako moduan beteko dira. Kide berriaren agintaldia kontseiluko gainerako kideenarekin batera bukatuko da, non eta ez den gertatzen 1. zenbakian aurreikusitako egoeraren bat.

II. KAPITULUA

Kontseiluko organoak

5. artikulua. Kontseiluko organoak.

Kontseilua organo hauetan egituratuta dago:

a) Osoko bilkura.

b) Lan batzordeak.

c) Lehendakaria.

d) Lehendakariordea.

e) Idazkari nagusia.

6. artikulua. Osoko bilkura.

Osoko bilkura kontseiluko organo erabakitzaile nagusia da, eta kide guztiek osatuko dute, lehendakariaren zuzendaritzapean eta idazkari nagusiaren laguntza duela.

7. artikulua. Osoko bilkuraren eginkizunak.

1. Ondokoak dira osoko bilkuraren eginkizunak:

a) Nahitaezkoa izan arren loteslea ez den irizpena ematea gai hauen gainean:

a.1. Gizarte eta ekonomiaren edo lanaren arloko gaiak arautzen dituzten foru legeen aurreproiektuak, Nafarroako Gobernuaren ustez arlo horietarako garrantzizkoak badira, eta bereziki, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legearen aurreproiektua, horren gaineko irizpena Gobernuak Nafarroako Parlamentura bidaliko duen proiektuari erantsiko baitaia.

a.2. Kontseiluaren beraren antolaketan, eskumenetan edo funtzionamenduan funtsezko eragina duten foru legeen aurreproiektuak edo administrazio xedapenen proiektuak.

a.3. Beste edozein gai, baldin eta, lege batean ezarritakoaren arabera, nahitaezkoa bada horri buruzko kontsulta egitea kontseiluari.

b) Txostenak edo azterlanak egitea, bere ekimenez edo Nafarroako Gobernuak edo Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eskaturik, gizarte eta ekonomiaren edo lanaren arloko gaien inguruan, bai eta beste gai batzuen gainean ere, hala nola ekonomia, fiskalitatea, gizarte ongizatea, nekazaritza, abeltzaintza, merkataritza, hezkuntza, kultura, ikerketa, osasuna, kontsumoa, ingurumena, garraioak, komunikazioak, industria, etxebizitza, eskualdeen garapena, azpiegiturak, Europar Batasuna eta estatistika.

c) Urtero, Nafarroako egoera sozioekonomikoari eta lan egoerari buruzko txostena prestatu eta Nafarroako Gobernuari igortzea, gero Nafarroako Parlamentuari bidaltzeko.

d) Kontseiluaren aurrekontuei buruzko proposamena egin eta onestea.

e) Hala behar denean, kontseiluaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzko barne erregelamenduaren proposamena egitea, Nafarroako Gobernuari bidaltzeko, onets eta argitara dadin.

f) Lan batzordeak eratu eta desagitea eta haien eskumenak eta funtzionamendu-araubidea zehaztea.

2. Aurreko 1. ataleko a) eta b) letretan aipatzen diren irizpenak hamabost egun naturaleko epean eman beharko ditu kontseiluak, eskaera jasotzen duenetik hasita. Bidaltzen den espedientearen berriaz eta arrazoiak emanda adierazten bada irizpena presakoa dela, epea zazpi eguneko izanen da. Epea bukatu eta irizpena eman ez bada, egingizat joko da, eta bidezkoak diren ondorioak izanen ditu.

8. artikulua. Osoko bilkuraren funtzionamendua.

1. Lehendakariak deituta egingen da osoko bilkura. Era berean, kide guztien herena ordezkatzeko duen kide-kopuruak eskatzen duenean ere egin ahalko da.

2. Osoko bilkura lehen deialdian balio osoz eratu da kideen erdiak gutxienez agertzen badira, lehendakaria edo legez haren ordezkaria dena barne. Bigarren deialdian ez da kideen gutxienezkorik eskatuko, nahiz eta beharrezkoa izanen den

lehendakaria edo legez haren ordezkaria dena bertan izatea.

3. Osoko bilkuraren erabakiak bilkuran dauden kideen gehiengo soilaz hartuko dira.

4. Berdinketa izanez gero, kalitatezko botoa izanen du lehendakariak.

5. Bilkurako kide batzuk gehiengoak hartutako erabakiarekin ados ez badaude, aukera izanen dute boto partikularra emateko; boto horiek, izenpetu ondoren, hartutako erabakiari lotuko zaizkio.

9. artikulua. Lan batzordeak.

1. Lan batzordeak azterketa-taldeak dira, osoko bilkuran ebatzi beharreko txostenak, proiektuak edo proposamenak egiten dituztenak.

2. Osoko Bilkurari dagokio beharrezkotzat jotzen diren lan batzordeak eratzea eta haien osaera zehaztea. Salbuespen gisa, lehendakariak lan batzordeak eratzeko ahalko ditu, betiere Osoko Bilkurak berretsi beharko dituenak.

10. artikulua. Lehendakaria.

Kontseiluko lehendakaria Nafarroako Gobernuaren foru dekretu baten bidez izendatuko da, gutxienez ere kontseiluko kideen erdiak proposaturik.

11. artikulua. Lehendakariaren eginkizunak.

Lehendakariak eginkizun hauek ditu:

a) Kontseilua zuzentzea eta haren ordezkariak izatea.

b) Bilkuretarako dei egitea eta eguneko gaien zerrenda zehaztea.

c) Bilkuretan buru izatea, eztabaidak moderatzea eta, aski justifikatuta dagoenean, haiek bertan behera uztea.

d) Bere botoarekin berdinketak desagitea, erabakiak hartu ahal izateko.

e) Erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onestea.

f) Erabakiak bete daitezela xedatzea.

g) Kontseiluko lehendakari karguari berez dagozkion gainerako eginkizunak.

12. artikulua. Lehendakariordea.

1. Kontseiluak lehendakariorde bat izanen du, eta lehendakariak hautatuko du kontseilukideen artean.

2. Kontseiluko lehendakariordeak lehendakaria ordeztuko du haren kargua hutsik dagoenean, kanpoan edo eri dagoenean edo beste arrazoi jusez.

tifikaturen bat izaten denean, eta hark espresuki eskuordetzen dizkion eginkizunak ere bete ahalko ditu.

13. artikulua. Kontseiluko kideen ahalmen eta eginkizunak.

1. Kontseiluko kideek ahalmen eta eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Bilkuretako gai-zerrenda jasotzen duen deialdia garaiz hartzea.

b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.

c) Boto eskubidea erabiltzea eta boto partikularra ematea, bai eta botoaren zentzua eta haren arrazoiak azaltzea ere. Administrazioaren ordezkari diren kideak ezin izanen dira bozketetan abstenitu.

d) Galderak eta eskaerak egitea.

e) Esleitu zaizkien eginkizunak betetzeko behar den informazioa, gai-zerrendako gaien ingurukoa barne, garaiz jasotzea.

f) Karguari berez dagozkion gainerako eginkizunak.

2. Organo kolegiatuko kide titularrak kanpoan edo eri daudenean edo justifikatzen diren gainerako kasuetan, ordezkari kideak joanen dira haien ordezkari, horrelakorik baldin badago.

14. artikulua. Idazkari nagusia.

1. Idazkari nagusiak Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko pertsona bat izan behar du.

2. Idazkari nagusia, Kontseiluko kidea izan gabe, foru dekretu baten bidez libreki izendatuko da eta kargutik kenduko.

3. Idazkari nagusiaren kargua hutsik dagoenean, kanpoan edo eri dagoenean eta justifikatutako gainerako kasuetan, haren ordezkari organo kolegiatuko beste kide bat arituko da, hots, Foru Komunitateko administrazioan hierarkia, antzintasun eta adin gutxiago duen bat, ordena horri segituz. Hierarkia eta antzintasuna organo horri buruzkoak izanen dira.

15. artikulua. Idazkari nagusiaren eginkizunak.

Idazkari nagusiak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Osoko bilkuran eta lan batzordeetan parte hartzea, hizpidearekin baina botorik gabe.

b) Organoaren bilkuretako dei egitea, organoaren lehendakariak hala aginduta, eta kideentzako zitazioak egitea.

c) Kideak eta organoa elkarrekin komunikatzeko egintzak jasotzea, hau da, jakinarazpenak, datu eskaerak, zuzenketak edo hark ezagutu behar dituen bestelako idazki guztiak.

d) Arazoak ebazteko bidea prestatzea, bilkuretako aktak idatzi eta baimentzea.

e) Onetsi diren kontsulta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak ematea.

f) Idazkari nagusiaren karguari berez dagozkion gainerako eginkizunak.

III. KAPITULUA Kontseiluaren araubide ekonomiko-finantzarioa

16. artikulua. Araubide ekonomiko-finantzarioa.

1. Kontseiluak, bere helburuak betetzeko, Nafarroako aurrekontu orokorretan esleitzen zaizkion baliabide ekonomikoak izanen ditu.

2. Kontseiluko kideek, lehen taldeko kideek izan ezik, bilkuretara joatearen truke ezar daitekeen ordainsaria jasotzeko eskubidea izanen dute.

3. Halaber, lan batzordeetako kideek ere ordainsaria jaso dezakete, batzorde horiei eskatzen zaizkien txostenak egiteagatik.

4. Aurreko lerroketan aipatzen diren ordainsariak ordainduko zaizkie kontseiluko kideak hautatu dituzten entitateei.

5. Idazkari nagusiak dagozkion eginkizun eta lanen araberrako ordainsaria izanen du. Ordainsari hori bateragarria izanen da Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko funtzionario edo enplegatu gisa dagokiokeenarekin.

Lehen xedapen iragankorra. Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko egungo kideen jardunaren iraupena.

Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko apirilaren 4ko 8/1995 Foru Legeak arautzen duen Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko egungo kideek beren karguan iraunen dute harik eta kide berrien izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den arte.

Bigarren xedapen iragankorra. Eratze bilkura eta lehendakaria.

Kontseilua eratze bilkuran, eta lehendakaria izendatu bitarte, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren egungo lehendakariak iraunen du kargu horretan jardunean.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Arau osagarriak.

Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamenduari buruz foru lege honetan aurreikusi ez den orotan, Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen III. titulu-ko III. kapituluan ezarritako arauak aplikatuko dira.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proiektua, Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin, aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2005eko urriaren 3ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Artikulu berria. 64. artikuluan 2. eta 11. idatzatiak aldatzea eta 12. idatz-zati berria gehitzea.

64.2. artikulua. Lanaren prestazioa kontratatze gaitasun legezkia dutenak izan daitezke bazkide. Bazkide langilearen izaera galtzeak berekin dakar kooperatiban lana egiteari behin betikoz uztea. Bazkide langileek kooperatibarekin duten lotura sozietate-izaerakoa da, eta haiei ezin zaie aplikatu besteren konturako langileei aplikatzekoa den legedia, baizik eta kooperatibei aplikatzekoa den legedia, bai eta kooperatibaren estatutuak eta erregelamenduak ere.

64.11. artikulua. Lan-arloko organo jurisdikzionalak lan elkartuko kooperatiben eta beren bazkide langileen artean azken horien izaera dela-eta suertatzen diren auziak aztertzen dituzte. Ondorioz, lan- eta bazkidetasun-lotura berezi horretan oinarrituak ez diren gatazkek, edozein bazkideren eta bestelako kooperatiben artean sor daitezke-

nen parekoak direnek, arlo zibileko epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean segitzen dute.

Ikuspegi horretatik, hertsiki lan elkartuko kooperatibaren eta bere bazkide langileen arteko harreman tipikoaren esparruari dagozkion gaitzat joko dira lan-aurrerakinak edo haien osagarri nahiz ordezko diren prestazioak haietarako eskubidea dagoen neurrian jasotzeari dagozkionak; lan- eta sozietate arloko diziplinako arauak hausteagatik ezarritako zehapenak, baita arrazoi horren ondoriozko egozketa ere, aurkatzeko errekursoak; lan-etendurako egoerak eta eszedentziak; Gizarte Segurantzaren arloko gaiak; soldatapeko langilea bazkide langile izatera iristeko bideari dagokiona; eta, orokorrean, hain zuzen ere kooperatiba-lanaren araubideari buruzko barne-arauetatik eratorritako eskubide eta betebeharrak.

Edozein kasutan ere, auzi horiek ebazte aldera lehentasunez aplikatuko da lege hau, estatutuak eta kooperatibaren gainerako barne-erabakiak eta, oro har, kooperatiba-printzipioak. Halakorik ez denean, lan-arloko legediko xedapenak aplikatuko dira, analogia erabiliz.

64.12. artikulua. Kooperatiba horien lantegiei eta bazkideei aplikatzekoak izanen dira laneko segurtasun eta higienerari buruzko arauak.

Halaber, gaueko lanei edo lan osasungaitz, neketsu, kaltegarri edo arriskutsuei dagokienez 18 urtetik beherako langileentzako lan-arloko legediak ezarritako murriztapenak ere aplikatuko zaizkie hemezortzi urtetik beherako bazkide langileei".

Zioak: Beharrezkoa iruditzen zaigu lan elkartuko kooperatibei buruz dagoen araubidea aldatzea, halako moldez non argi geratuko den bazkide-izaerak lehentasuna duela langile-izaeraren aldean, gure inguruko legedi guztietan gertatzen den bezala; hori horrela, lan elkartuko kooperatiba bateko langile-izaera soil-soilik galdu ahal izan

behar da kooperatibako bazkide-izaera galduz gero.

Ildo horretatik, araubidean sakondu egiten da, gatazkak ebaztean jurisdikzio zibila, eta ez lan-arlokoa, eskudun izan behar deneko zenbait kasu argitzeko.

Eta, azkenik, laneko segurtasun eta higieneari eta adinez 18 urtetik beherakoak diren langileen-gan aplikaturiko murrizketei dagokienez lan-arloko legedia aplika dadila ezartzen dugu.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

64. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Beren lanaren prestazioa kontratatzeko gaitasun legezkoa dutenak izan daitezke kooperatiba bateko bazkide langile. Bazkide langileek kooperatibarekin duten lotura sozietate-izaerakoa da, eta haiei aplikatzekoa izanen da kooperatibei buruzko legedia, bai eta kooperatibaren beraren estatutuak eta erregelamenduak ere, halakorik egonez gero.

Bazkidearen izaera galtzeak berekin dakar langilearena ere galtzea.

Halaber, lan-lotura desegiteak berekin dakar kooperatibistaren sozietate-lotura ere desegitea; horrenbestez, kooperatibista izateari utziko dio”.

Zioak: Bazkide langileak bi harreman ditu. Biak elkarren baitan daude. Haietako bakoitzaren kasuan, harremanerako ekimenaren eta haren garapeneraren zergatiak berezkoak izan daitezke, hasiera batean beste harremanarekin zerikusirik ez dutenak, nahiz eta, gero, zuzeneko eragina izan beste harremanean. Beharrezkoa da arauketa bat egitea, hala harreman horietako bakoitzaren bereizgarritasunarena nola haien elkarrekiko menpekotasunarena eta batean zein bestean eragiten ondorioena ere.

Berez, zuzenketa hau ez zaio aurkezten lege proposamena osatzen duen testuari, baina, gure ustez, prozesuaren ekonomia arrazoiak direla-eta, zilegi da hura parlamentuko tramite honetan jorraztea.

3. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

64. artikuluko 11. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“11. Laneko jurisdikzioa eskuduna izanen da kooperatibaren eta bazkide langileen artean gerta daitezkeen gatazkak, lan-harremanetik sorturikoak, aztertzeko, baita lan-harreman horri dagokion orotan ere.

Halaber, lan-arloko jurisdikzioak bazkidearen lan-harremanarekin zuzeneko zerikusia duten auzi guztiak aztertuko ditu, eta haiei buruzko eskumena izanen du, salbu eta sozietate-harremanetik sorturiko auzietan, nahiz eta horiek, harremana desegitearen ondorioz, lan-harremana ere desegitea erakar dezaketen.

Jurisdikzio zibil arruntari dagokio, lankidetzaren bidea burututa dagoenean, bazkide langilearen sozietate-harremanetik sorturiko auziak aztertzea.”

Zioak: Sozietate-harremanak jurisdikzio zibilarri dagozkio, eta lan-harremanak, berriz, lan-arloko jurisdikzioari. Badago gai bat zeinean bi harreman horiek bat egiten duten: izaera bat (bazkidearena nahiz langilearena) galtzea aurretiaz beste izaera galdu izanaren ondorioz. Horrela, bada, 64. artikuluko 11. idatz-zatiko araua zuzendu beharra dago, iradoki zaigun moduan.

Berez, zuzenketa hau ez zaio aurkezten lege proposamena osatzen duen testuari, baina, gure ustez, prozesuaren ekonomia arrazoiak direla-eta, zilegi da hura parlamentuko tramite honetan jorraztea.

4. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

74. bis artikuluko berriko 1. idatz-zatia eta 2. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa. Gizarte ekimeneko kooperatibak.

“1. ...ondoko xede sozialak dituzten kooperatibak:”

“2. a) Irabaziak ezin izanen dira bazkideen artean banatu.”

Zioak: Gure ustez, irabazi asmorik gabeko enpresa batean jokabide iraunkorra izan ohi da irabazirik ez banatzea, eta ez da mugatu behar ekitaldi ekonomiko batean izandako irabazietara.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan Interneteko domeinu bereki eta berariazkoa kudeatzeko.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan Interneteko domeinu bereki eta berariazkoa kudeatzeko".

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak, 2006ko martxoaren

3an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordioak lor ditzan hegazkin-konpainiekin Iruña-Noingo aireportua hobetze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da akordioak lor ditzan hegazkin-konpainiekin Iruña-Noingo aireportua hobetze aldera".

Legebiltzarrak 2006ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko abenduaren 27ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa txiki eta ertainen behatokia sor eta arau dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa txiki eta ertainen behatokia sor eta arau dezan."

Legebiltzarrak 2006ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan Uztartu Plana izenaz ezagutzen dena foru arauetara aldatzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan Uztartu Plana izenaz ezagutzen dena foru arauetara aldatzeko."

Legebiltzarrak 2006ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko bidaiarien garraioa hobe dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko bidaiarien garraioa hobe dezan."

Legebiltzarrak 2006ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira akordio bat lor dezaten abiadura handiko trenbidearen korridorea izenekoa eraiki eta finantzatzeko.

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Demokraten Elkargunea parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira akordio bat lor dezaten abiadura handiko trenbidearen korridorea izenekoa eraiki eta finantzatzeko:"

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2006ko martxoaren 2an egindako bileran, Unión del Pueblo

Navarro eta Nafarroako Demokraten Elkargunea parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa erretiratu izanaren jakitun dagoela adierazi zuen. Mozio hori 2005eko abenduaren 27ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	